



Santa Barbara, leku atsegin hori

*Xanti Gorrotxategi
San Martin*

Seguraski hernaniar guztiok Santa Barbara mendia eta bere inguruak ezagutuko ditugu. Nork ez du igande goiz batez bere bideetan ibilaldiren bat egin, nor ez da noizean behin ko-rrika egitera joan, edo harrobipean sortu den lakuan kolorezko arrainak harrapatzera joan edo txirrinda hartuta ibilalditxo egin edo harkaitz bertikal eta labainkor horienpean geratu bertan eskalatzen ari den jende-ari begira edo... eskalatzen aritu.

Santa Barbara eskalada eskolaz ari naiz noski, eta Aranburu harrobiak beste garaietan koska ederrak eman bazizkion ere, oraindik Hernaniko teilatu guztien gainetik hor dugu, berdea udaberrian, kolorez udazkenean, neguan zuriz batzutan.

ondo ezagutuko duzuen mendi baten adibidea: Txindoki mendia.


Oinez zenbait lekutatik igo gaitezke; Larraitx, Amezketa, Igaratza eta abar besteak beste. Neguan elurtuta badago eskiz egin genezake; eta mendebaldetik dagoen ertz zorrotz horretatik igoko bagina?. Adizu, baina horretarako sokak behar dira!.

Beno, baina joan aurretik zerbait ikasi beharko dugu, ez dakit, lagun batekin (ondo dakien lagun batekin) edo elkarte baten bidez ikastaroaren bat egin. Beraz,

ESKALADAREN ZERGATIA

Eskalada mendizaletasunaren barruan egiten den ekintzetako bat da. Mendizaleak mendia maite du eta mendira hurbiltzen da. Baina mendi batera igotzeko bide eta era ezberdinak daude. Demagun denok





Santa Barbarara abiatuko gara ikasteko asmoz. Orain 40ren bat urte atzera jo behar-ko dugu harkaitz hauetan eskaladaren hasiera ikusteko.

HISTORIA APUR BAT

Datu zehatzik ez badut ere, 50. hamarkadan lehen saiakerak egin zirela esan daiteke. Mendiko bota gogorak, galtzerdi lodiak, belaunak arteko prakak, jertsea, kaskoa eta motxila. Sokak kalamozkoak, iltzeak, askotan lantokian eginak, mailua, egurrezko ointokiak eta burdinezko mosketoiak, garaiko tresnak ziren. Hormapean bakarren batzuk, denok ezagunak, bake eta ixiltasuna nagusi zirelarik. Soka gerrian lotu eta... erne hi, motorra jarri zaidak eta! aseguratzeko soka sorbaldapetik pasatzen baitzen.

Marrazkian ikus daitekeenez horiek ziren garai haietan egiten zituzten bideak, gutxi gora behera 20 inguru. Zailtasuna neurtzeko 6 gradu zeuden, lehenetik seigarrenera.

Bi eskalada mota praktikatzen ziren, librea eta artifiziala. Lehena eskuen eta hanken bidez eginikoa eta bigarrena horma oso bertikala edo desplomatua zenean, ointokien bidez (lehen aipatutako egurrezko eskailera txikiak) egiten zena.

Graduazioa horrela egiten zen:

Librea 1.,2.,3.,4.,5. eta 6.

Artifiziala A1,A2,A3.

Zailtasuna gehiago zehazteko


gradueneratean + eta - jartzen zen:

III gor; IV beh; IV, IV gor...

Hau guztian mundu oso bat zen baina beste mundu handiago baten barruan:



S

anta Barbara
leku atsegin

Alpinismoa. Santa Barbarara joaten zen jendeak gero mendian eskalatzekeo entrenatzen zuen; Pirinioa, Alpes eta abar. Adibide gisa, pentsa ezazue lehen eskalada eskoletan motxila aldean eramanda eskalatzen zela, gaur egun pentsaezina.

Izerdi franko bota ondoren, inguruko sagardotegietara abiatu edo igandea bazen Tilosetako dantzalekura jaitsi eta ahal bazen txaperoari ez ordaintzen ahalegindu. Garai haietan eta ligatzeko pagatu behar!.

HAIZE BERRIAK

80. hamarkadan Iparramerikatik estilo berri bat ailegatu zitzaigun. Eskalatzekeo erabiltzen den arropa arinagoa, botak erabili beharrean goma duten oinetako bigun batzuk, presari hobe eusteko gerrian poltsa txiki bat magnesioz beteta.

Gainera lehen artifizialean egindako bideak librean saiatzen dira muga altuagoa jarritz. Aurrerapausu hau eman zedin, besteak beste, aldaketa batzuk behar ziren: materiala arinagoa, aseguratzekeo tresna hobea-goak, prestakuntza fisikoa eta mentalitate berri bat.


Seigarren gradua motza geratzen hasten da eta aldaketa hauen ondorioz 7. gradua jaio zen. Gaur egun 9. gradua ote dagoen eztabaidatzen ari da zenbait lekutan. Hemen estilo berri honen eraginak nabaritzen hasi dira ondoko marrazkian ikusten den bezalaxe.

Eboluzio honek mentalitate berri bat sortzen du erorketa edo "bueloa" gehiago onartuz, lehen ia pentsaezina zena. Hau dela eta, materiala erabat ezberdina da eta

SANTA BARBARA



N.º	NOMBRE	DIFICULTAD	N.º	NOMBRE	DIFICULTAD	N.º	NOMBRE	DIFICULTAD
01	ZERO	4'	20	LIBRO	4'	42	CAUCIOS	7c +
02	TRES CUARTOS	5'	21	BASTARDA CRUCIFIXION	6a	43	WANKATANKA	6a +
03	ZERO CON CINCO	4'	22	MUSQUILLO EN EL SOBAQUILLO	7a	44	BANANA SPLIT	6c +
04	UNO	5'	23	1	5'	45	FIGURA ITXASO	5 +
05	UNO TRES CUARTOS	5'	24	BEATRIZ	5'	46	ROCMAN	6a +
06	UNO Y MEDIO	5'	25	TE RILAS POR LAS TRANCAS	6c +	47	MARIJIT	6b
07	2	8b +	26	TAMIN FELIPE	5'	48	GRADIAS	4'
08	DOS	4'	27	TXANPI	6a	49	Y VARIANTE DIEGO	5'
09	Y VARIANTE JOSHIMARI	6a	28	DURIKATKABOLA	7a	50	PLACA	A.0
10	TECHO	5'	29	ZONABOY	7b +	51	PLACA BONITA	5b
11	DOS Y MEDIO	6a +	30	JORDI MI CAES GORDO	5'	52	AZKEN AURRERAKO	5'
12	TRES	5'	31	SARDINAS CHANTILLY	7a +	53	INAXI	5'
13	ROMANESCU	6b	32	EL MURO DE BERLIN	7b	54	SPEED SLOUURRATIK	6c
14	TEPEDES	6b	33	PICADA BARRINA	7a	55	ASPERIZAS PERIZ	7b +
15	ADA A PUERTU	6c	34	PAS DE COINCEURS	7a +	56	GORILLODOME	7b
16	CHUBASQUEIRO DO PITO	6a +	35	PERICOLOSO SPOGERSA	6c	57	OTRAVIATA	7b
17	MARIA/MONTSERRAT	5'	36	FEURA VERDE	8'	58	MAITE	6b
18	MALESTAR	6a +	37	ESTA SI QUE ES BUENA	8a			
19	Y VARIANTE FIJATE	6b	38	BOMBO	7b y 8a			
	ZAKIL TORO	6b +	39	ZARAZITTARAK	5'			
	ESPOLON BIENESTAR	7a	40	TXOTKO LOKO	6c +			
	BUHO	4'	41	CHINDASINTO	6a y 8a +			



denbora luzez egon ziren iltze eta egurrezko takoak harri-tarte eta zuloetatik ateratzen dira espitak jarriaz. Sistema honekin erorketa eta dagoen arriskua saihestu egiten dira.

nola ibiliko ziren hemen lehen eskalatzaileak edo hain urruti joan gabe gure hasiera xelebreak duela 20 urte.

Hori bai, oraindik ondoko sagardote-giak zutik dirau eta egarri dexente pasatu ondoren, sagardoaren txurruuuuut hori nere edalontzian entzutean neure buruari gaurko saioak merezi izan duela esaten diot eta bihar zergatik ez beste bat. Beraz badakizue, Hernanin eskola polita daukagula eta mesedez:

Ez zikindu ingurua, ez zapaldu ondoko zelaia eta kabiak dauden lekuetan ez eskalatu. Bertikalean ikusi arte !!. ■

ERREALITATETIK NOSTALGIARA

Une honetan 55 bide daude, 3. gradotik 8. gradoraino. Leku batzuetan bide bate-tik bestera metro bat besterik ez dago. Lehen mendizaleak baziren bere harkaitza laztantzera hurbiltzen zirenak, egun, mota askotako jendea joaten da beste helburu batzuekin. Batzuentzat, lehen bezala, hau leku bat da entrenatzeko gero Pirinio, Alpes, Himalaya edo beste mendikateetara joateko. Beste batzuentzat berriz, harkaitz hauek eskainitako zailtasuna bera da helburua eta zenbat eta gutxiago ibili behar gero eta hobe.

Niri pertsonalki aldaketak eta korrante berriak ezagutzea gustatzen zait. Dena den batzuetan nostalgia pixka bat sentitzen dut. Udako arratsalde berotsu batean jendez beterik dagoenean, ixiltasunik ez denean eta ia itxaron egin behar denean bide bat egin ahal izateko imajinatzen dut

